

Ohore handia izan da Mashabrum komunitatea ordezkatzea, bereziki Machulo eta Hushe Ibarreko komunitate osoa. Eta ahalik eta gehien saiatu ginen hezkuntzaren, osasunaren, turismoaren eta nekazaritzaren alorretako arazoak eta erronkak Gilgit-Baltistango ministro buru ohoragarriaren arretara eramaten.

- Machuloko Batasunaren Kontseilua Ghanche barrutiko azpiatal administratibo deklaratzeko.
- Diru-laguntza globala Mashabrum azpiatala garatzeko hezkuntzaren, osasunaren, nekazaritzaren, turismoaren eta enpresen eremuan.
- Izotz eta harkaitz eskaladako eskola/institutua sortzea Hushe Ibarrean, turismoa sustatzeko.
- Goi mailako bigarren hezkuntza sortzea Thagus eta Machulon.
- Haur-amatasunaren ospitale bana sortzea Mashabrum Batasuneko kontseilu bakoitzean.
- Anbulantziak Hushé, Kande eta Kunduserako
- Eskola-autobus bat Machuloko Bigarren Eskolarako eta Thaguseko Bigarren Eskolarako.
- Hormigoizko babes-horma Hushé ibaian, Ghurseyn aldean.

Khurshid Alam ministro buru ohoragarriak agindu zuen demanda guztiak onartuko zituela eta berehala aholkatu zien ministerio eskudunei gai guztiak lehentasunez jorratzeko. Era berean, Ghurseyn babes harresiak eraikitzea agindu zuen bere ADPTik, eta Turismoko Ministro ohoragarriari Hushé ibarrean "izotz eta harkaitz eskalada institutu" bat ezartzeko aholkatu zion, abentura turismoa sustatzeko premiazko gai bezala, bailara honek ahalmen handia baitu arlo honetan. Agindu zuen 2021eko ekainean Machulo bisitatuko zuela berriro, bere kontseilu guztien inplementazioa ziurtatzeko, eta Gilgit-Baltistanen Gobernuaren lehentasunezko gai gisa jendearen egoera sozio-ekonomikoa hobetuko duten beste proiektu batzu aztertzeko. (ingelesetik itzulua)